

UNIBERTSITATEAN SARTZEKO PROBA
GEOGRAFIA AZTERKETA
2007/2008 IKASTURTEA

JARRAIBIDEAK:

Bi ariketa aurkezten dira, bat aukeratzeko: A aukera eta B aukera. Biek egitura bera dute. Ikasleak horietako **BAT** aukeratu beharko du.

A AUKERA

1. zatia. (2 puntu, 0,5 termino bakoitzeko)

Definitu, garbi eta zehatz, termino hauetatik soilik 4: Temperatura-bitartea, Landaredi xerofiloa, Biztanle errolda, NBBEF (Nekazaritza Bideratu eta Bermatzeko Europako Funtsa-FEOGA), Konurbazioa, Orogenia alpetarra.

2. zatia. Gaia: “Espainiako sare hidrografikoa”. (4 puntu gehienez ere)


Garatu gaia kontuan izanda honako alderdi hauek:

- Espainiako ibaien trazatuan, emarian eta erregimenean eragiten duten faktoreak.
- Isurialde mediterraneoko ibaiak.
- Nafarroako ibaiak: ezaugarriak eta isurialde hidrografikoak.

3. zatia: Ariketa praktikoa. (4 puntu gehienez ere)

Behean daukazun mapa ikusirik, erantzun galdera hauei:

- Komentatu Espainiako biztanleriaren banaketa espaziala.
- Azaldu zer faktorek eragiten duen banaketa horretan.
- Aipa itzazu kilometro karratuko 100 biztanle baino gehiago daukaten erkidego autonomo guztiak. Aipa ezazu erkidego horietako probintziak zeintzuk diren.



ESPAINIAKO BIZTANLERIA-DENTSITATEA 2002

B AUKERA

1. zatia. (2 puntu; 0,5 termino bakoitzeko)

Definitu, garbi eta zehatz, termino hauetatik soilik 4: Akuiferoa, Lapiaz, Ibai-terraz, Hirigune historikoa, Zuzenbidezko biztanleria, EGEF (Eskualde Garapeneko Europako Funtza-FEDER).

2. zatia. Gaia: "Nekazaritza Espainian". (4 puntu gehienez ere)

Garatu gaia kontuan izanda honako alderdi hauek:

- Espainiako nekazaritza baldintzatzen duten faktore fisikoak.
- Nekazaritza ekoizpena Espainian.
- Laborantzak Nafarroan.

3. zatia: Ariketa praktikoa. (4 puntu gehienez ere)

Komentatu behean duzun grafikoa, honako galdera hauei erantzunez:

- Temperaturen eta prezipitazioen bilakaera, urtean zehar. Bilakaera horretan eragiten duten faktoreak.
- Klima-mota, eta, gutxi gorabehera, kokapena Espainian.
- Klima-mota horrek landaredian daukan eragina.

Urteko prezipitazioa: 524 mm. Urteko batez besteko T.: 18° C

